

ZALDIBARREN IBILGAILU MOTORDUN GABEKO ASTEA EGIN DA.

Zaldibar eskolako ekoordezkariek prestatutako ibilgailu gabeko asteko kanpainak, kotxeen erabilera murrizten bultzatu die herritarrei.



Ekoordezkariek eskolan sartzen: Idoia Bereziartua , Aide Carrillo, Ekain Uribarri, Irai Urizar, Andra Rotaru, Sare Atxotegi eta Izar Villanueva.

Zaldibar, 2026ko maiatzaren 7a. Amaitu da aurten ospatu den ibilgailu gabeko astea, eta lehen datuek kanpaina arrakastatsua izan dela adierazten dute. Kanpaina apirilaren 27an hasi zen eta maiatzaren 3an amaitu zen. Eskolak erregistratu duen datuen arabera, eskolako familien ibilgailu

motordunen erabilera % 30,67 izan da eta %69,33ak ordea ez du erabili.

Kanpaina osteko datuak ikusita eskerrak eman nahi dizkiogu herri eredu bat posible egiten duzuen guztioi: isilagoa, garbiagoa eta atseginagoa egiten duzuelako.

Kanpaina amaitu bada ere, esparru honetan lanean jarraitzeko asmoa dugu, beraz herritar guztiak animatzen ditugu gurekin bat egitera. **Zaila bada, ez da ezinezkoa; zaila bada, badago lortzea!**